Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

# *Eulogia Zabala Arkarazo*

# *Abadiño, Bizkaia (1920-2002)*

Aurkibidea

## Biografia

## Zintak

### ABD-027

- **Proiektua**: IRALEren Bizkaiera Bilduma
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Balbuena, Begoña - Madariaga, Mila
- **Data**: 1985-11-29
- **Iraupena**: 64 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Mendiolako eskolako kontuak

- **Erref**: ABD-027/002
- **Iraupena**: 0:02:49. **Hasi**: 00:00:26. **Bukatu**: 00:03:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena**:
Hiru urterekin hasi zen eskolan. Orduantxe ipini ei zuen Aldundiak eskola Mendiolan. Hiru urtetik seira bitartean maistra euskalduna eduki zuen, baina gainontzekoak erdaldunak, Bilbokoak. Eurak ez zekiten gaztelaniaz, baina maistrak zigortu egiten zituen euskaraz hitz eginez gero. Hamabi urtera arte ibili zen. Zer ikasten zuten.

## 2. Baserrian lan egin behar

- **Erref**: ABD-027/003
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:03:15. **Bukatu**: 00:04:26
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Hamabi urterekin utzi zuen eskola eta handik aurrera lan egin beharra izan zuen. Etxeko giroa; aitita eta amama. Baserrian egin behar izaten zituen lanak: behiak batu, azpiak egin, basora joan...

## 3. Gerraostean Abadinon musika debekatuta; Axpera erromeriara

- **Erref**: ABD-027/004
- **Iraupena**: 0:01:09. **Hasi**: 00:04:26. **Bukatu**: 00:05:35
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Berak 15 urte zituela irten zen gerra. Gerraostean, Abadinoko alkateak musika guztia debekatu zuen, danbolina izan ezik, eta Axpera joaten ziren erromeriara. Han eskusoinua jotzen zuten. Abadiñora ez zen inor joaten. Durangora joaten zen jendea, baina nagusiagoentzat ei zen. Alkatea aldatu zenean, berriz baimendu ziren erromeriak Abadiñon.

## 4. Goizeko ordu bietan jaiki eta Otxandiora "bendejiaz"

- **Erref**: ABD-027/005
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:05:35. **Bukatu**: 00:07:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

**Laburpena**:
Goizeko ordu bietan jaiki eta astoarekin Otxandiora joaten ziren "bendejiaz"

(baratzeko elikagaiekin), saltzera. Domeketan egiten ei zen "plazia" Otxandion. Inguruetatik nortzuk joaten ziren. Goizeko 6rak alderako iritsi eta meza entzuten zuten lehenengo. Gero, elikagaiak saldutakoan, hamarretakoa egin eta atzera buelta. Nondik zehar itzultzen zen etxera. Askotan gogo txarrez itzultzen ziren, erromeriara joateko ere gogorik gabe, batez ere uda partean.

## 5. Lamien inguruko ipuina

- **Erref**: ABD-027/007
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:08:12. **Bukatu**: 00:11:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena**:
Amamak kontatzen zien ipuina. Behin amamaren osaba bat basoan zehar etxera datorrela, ikazkinek utzitako zulo batean neska pila bat ikusi ei zuen dantzan eta eurekin dantza egin omen zuen. Ahateen antzeko hankak ei zituzten.

## 6. Mendiolan gertatutako ipuina

- **Erref**: ABD-027/008
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:11:36. **Bukatu**: 00:13:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Ipuinak, mitoak eta istorioak

**Laburpena**:
Mendiolan gertatutako ipuina.

## 7. Norekin egin izan duen hika edo zuka

- **Erref**: ABD-027/009
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:13:05. **Bukatu**: 00:15:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

**Laburpena**:
Senarrarekin beti zuka egin izan du. Etxean anai-arrebekin eta lagunekin beti hika. Hika egiteak konfiantza gehiago ematen duela dio. "Hik eta hok" esaten dio berak.

## 8. Gerra garaiko bizipenak; Ibarrurira ihesi

- **Erref**: ABD-027/010
- **Iraupena**: 0:02:43. **Hasi**: 00:15:25. **Bukatu**: 00:18:08

- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

**Laburpena**:
Gerra garaiko bizipenak. 15 urte zituen. Durangoko bonbardaketa gertatu zenean beldurtu ziren. Abadiñoko alkateak esan zien Mendiolatik alde egin behar zutela. Abere asko zituzten etxean, eta nora joan? Ibarrurira joan ziren, izebarenera. Ezer gabe itzuli ziren.

## 9. Gerraostean irinik ez eta gosea

- **Erref**: ABD-027/011
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:18:08. **Bukatu**: 00:19:21
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena**:
Gerraosteko kontuak. Errotak itxita eta irinik ez. Mekoletara (Otxandio ingurura) edo Aramaiora joaten ziren irinetara. Baserrian ez zuten pasa hainbesteko goserik, baina kalean bai. Ezkondu eta gero ere errazionamendua eta gosea.

## 10. Aurrekoek gehiago lan egiten zuten auzolanean

- **Erref**: ABD-027/012
- **Iraupena**: 0:01:04. **Hasi**: 00:19:21. **Bukatu**: 00:20:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

**Laburpena**:
Euren sasoirako goldea zegoen eta ez zen laiaketarik egiten auzolanean. Aurrekoek hala egiten zuten. Gari-jotzea bai egin izan du auzolanean.

## 11. Mendiolako San Kristobal jaiak

- **Erref**: ABD-027/013
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:20:25. **Bukatu**: 00:22:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

**Laburpena**:
Mendiolako San Kristobal jaiak. Lehenengo egunean gazteek egiten zuten aurreskua. Egun bakoitzean ze ekitaldi egoten ziren. Dantzazalea izan da.

## 12. Aitak trikiti piezak jotzen zituen gitarrarekin

- **Erref**: ABD-027/014
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:22:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Musika
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Dantzazalea izan da, aita bezalaxe. Aitak gitarra ere jotzen ei zuen, baina dantza solteko kantak bakarrik. Bere kontura ikasi ei zuen gitarra jotzen.

## 13. Nesken aurresku egunean, mutilek kale

- **Erref**: ABD-027/015
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:22:58. **Bukatu**: 00:24:58
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza

**Laburpena**:
Lehenengoak izaten ziren dantza egiten. Nesken aurreskua eta mutilena, egun desberdinetan. Behin, nesken aurresku egunean mutilek ez zieten lagundu. Orduko kontuak. Kanpotik dantzariren bat etortzen zenean, baimena eskatu behar izaten zuen aurreskua egiteko.

## 14. Berriz ezkontzen ziren alargunei, burla

- **Erref**: ABD-027/017
- **Iraupena**: 0:03:38. **Hasi**: 00:25:45. **Bukatu**: 00:29:23
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Alarguntasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Alargunen bat berriro ezkontzera zihoanean, burla antzekoa egiten zitzaion: etxetik elizaraino atzetik jarraitu arranak joz, edo beste zerbait eginez. Bere amaren ahizpa alarguna beste alargun batekin ezkondu zeneko kontuak.

## 15. Aita eta aitaginarrebaren asmo bihurriak

- **Erref**: ABD-027/018
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:29:23. **Bukatu**: 00:32:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Bere aita eta senarraren aita artzainak ziren, eta elkarrekin ibiltzen ziren sarri. Behin Otxandiora "bendejiaz" bakar-bakarrik joaten zen emakume bat beldurtzea bururatu zitzaien. Orduko pasadizoa. Sekulakoak egiten zituzten bi gizonek.

## 16. Amama, emakume gogorra

- **Erref**: ABD-027/020
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:33:00. **Bukatu**: 00:34:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Amamaren izaera; emakume gogorra. Haien garaian karlistak eta "baltzak" (monarkikoak) zeuden. Monarkikoek irabazi zutenez, haien alde egotea komeni zela esaten zion aititari, zerbait eskatu behar baldin bazitzaien ere.

## 17. Amamak pisuarekin azokan egindako tranpa

- **Erref**: ABD-027/021
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:34:30. **Bukatu**: 00:36:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena**:
Amama larunbatetan Durangora joaten zen etxeko elikagaiak saltzera. Bazeuden gutxiago pisatzen zuten pisuak, eta bandoa atera zuten herrian, pisu haiek erretiratzeko eskatuz. Amamak berdin-berdin pisu harekin jarraitu zuen. Harrapatu zutenean, izen faltsua eman zuen eta ezin izan zuten identifikatu.

## 18. Eguen zuri eguna mutilek bakarrik ospatzen zuten

- **Erref**: ABD-027/023
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:37:30. **Bukatu**: 00:38:40
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

**Laburpena**:
Eguen zuri eguna. Neskak eskolara joaten ziren normal-normal. Mutilak goizeko seiak aldean jaiki eta etxerik etxe ibiltzen ziren.

## 19. Senargaia Afrikara soldadu

- **Erref**: ABD-027/024
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:38:40. **Bukatu**: 00:39:55
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

**Laburpena**:
Senargaia (gero senarra izan zuena) Afrikara joan zen soldadu eta urtebete baino gehiago egin zuen han. Gero Lleidara ekarri zituzten eta han, Pirinioetan, beste urtebete inguru egin zuten.

## 20. Baserritarrak kare bila gurdiarekin

- **Erref**: ABD-027/026
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:40:27. **Bukatu**: 00:41:15
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

**Laburpena**:
Senarrak karobian lan egiten zuen urtean bi edo hiru hilabetez. Baserritarrak gurdiekin etortzen ziren kare bila. Urtean zehar, harria atera, bideak egin... halako lanak egiten zituzten.

## 21. Domeketan erromeriara; neska-laguntzeak

- **Erref**: ABD-027/028
- **Iraupena**: 0:01:57. **Hasi**: 00:42:35. **Bukatu**: 00:44:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

**Laburpena**:
Nobio garaiak. Domeketan erromeriara. Lehenengo gura adina "olgau" eta gero iluntzean neska-laguntzea. 21 urterekin senargaia soldadu joan zen eta 24rekin itzuli. Bitartean, lagunak mutil-lagunarekin ibiltzen ziren eta bera bakarrik ibiltzen zen. 28 urterekin ezkondu zen.

## 22. Erromerian azkenengo unera arte eta gero arineketan etxera

- **Erref**: ABD-027/029
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:44:32. **Bukatu**: 00:45:22
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

**Laburpena**:
Gaztetan, 17-18 urterekin, Apatamonasteriora joaten ziren erromeriara. Bederatzi eta erdietarako etxera joan behar. Dantza bat gehiago egitearren, beranduago irteten ziren eta gero ilundu. Arineketan etxera. Berandu iritsiz gero, sekulakoak entzun behar.

## 23. Elorriotik itzultzeko autobusak kale egin eta berandu etxera

- **Erref**: ABD-027/030
- **Iraupena**: 0:08:11. **Hasi**: 00:45:22. **Bukatu**: 00:53:33
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

**Laburpena**:
Behin, 18 urte zituela, Elorrioko jaietara zihoazela esan zioten lagunek. Berak goizean Otxandiotik buelta egin zuen eta jota zegoen. Baina hala ere hiru lagun joan ziren. Hamarretan zuten bueltako autobusa. Zain egon ziren, baina hamabiak aldera arte ez zen irten. Oso berandu iritsi ziren etxera. Amak sekulakoak esan zizkion. Pasadizoaren inguruko azalpen zehatzak. Ordutik oinez itzultzen ziren.

## 24. Semeak aizkorarekin belauna ebaki zuenekoa

- **Erref**: ABD-027/033
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:57:59. **Bukatu**: 00:59:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

**Laburpena**:
Behin semea basora joan zen auzokoekin "txopoa" jartzeko zuhaitzen bat ekartzera. Aizkora eskuan zeramala, errepidea pasatzeko salto egin eta belauna ebaki zuen. Hiru urtean jarraian, urtero gertatu zitzaion ezbeharren bat.

## 25. Semea bizikleta eta guzti errekara

- **Erref**: ABD-027/034
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:59:34. **Bukatu**: 01:00:45
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

**Laburpena**:
Behin semea bizikleta eta guzti errekara jausi zen. Arropak aldatu eta afaltzera, lasai.

## 26. Hiru ume urte bi eta erdian

- **Erref**: ABD-027/036
- **Iraupena**: 0:01:14. **Hasi**: 01:01:30. **Bukatu**: 01:02:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena**:
Hiru seme-alaba izan zituen urte bi eta erdian. Horrela ziren orduko kontuak. Mantar handiekin batzen zituzten umeak.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
*2026-11-20*

**CC-by-sa** | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com